

# MADALENAK EUSKALERRIAN

Madalenak. Egun luzeak.  
Ega luzien bitsa, atun bitsa.  
Ori esaten ekien len.

Gauza zarrak beti ei dagoz barritzen.  
Len esaten zana ba dator urre  
biurtzen.

Egin, ba, lengoari ten eta jarrai  
Madalenak ospatuten.

Eta ten, eta ten, eta ten,  
pekatari zala zeruan sartu ba zan Madalen.  
etorriko da norbait guri be parkatzen.

Madalen egunak ba daukaz bere esaera  
eta kantuak.

San Juan eguna lez, egun "señalatua"  
da askontzat.

Artzainak, esate baterako, egun onetan  
egiten dituez toki batetik bestera  
euren artaldiekaz ibilteko eskubide  
eta baldintzen zeaztasunak.

Lengo denporetan Madalen eguna au-  
keratzen eben baserrietan gaztainak  
erasteko sarda billa arboladietara  
joateko.

Madalenak eta gaztainak ba euken esa-  
eretan zer ikusi ugari:

Madalena bero, gastaina seguro.  
Madalen astea bero, gaztaina gero.

Madalen eguna egualdi onez, gaztain  
zaleak zorionez.

Eta ordez, Madalen egunez egualdi  
zatarra gertatu ezker, beste au: Ma-  
dalena giro txarrez, ikoak batzen ez  
zara nekatuko lorrez.

Abestietan ba dira danetakuak. Alaiak,  
umoretsuak eta ziridunak. Ezaguna  
da au:

Neskazarrak joaten dira Madalenara  
gogo beroz eskatzera nobio bana  
egoki ba da.

Madalenak egin ondoren buruari dar  
dar,  
diño: alper da.

Zer nai dozue egitea?  
Zuen sasoi igaroa da.  
Jakiña, orrelako kantuak, zelako  
umorea, alako atzea.

Ba iña ba dira kantu fiñak be:  
Santa Maria Madalena zan  
emakume txit fiña,  
errita txiki batian dago  
santa onen imagiña.

Pekataria izan zan baiña  
penitentziak egiña,  
obe genduke ura bezela  
konbertituko ba giña.

Odol beroko zala? Zein ez gaur?  
Alaz eta Madalenak ez dauz bastertzen  
odol gora-berak.

Ba dira inguruetan Madalen potzuak,  
odolaren zikinkerian garbitzeko.

Berriatua'ko mendietan, Gipuzkuko  
mugetatik urrun ez dala. Angoak  
ba dau bere esaera:  
Madalen Arantzadiko potsua,  
odol sikinak garbitzeko doaitsua.